



Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea  
ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO  
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

Gradu Amaierako Lana

## **LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA**

**2014/2015 ikasturtea**

### **IRAUNKORTASUNERAKO HEZKUNTZA: BASO ESKOLAK**

**Egilea: Ane Etxebarria Carriedo**

**Zuzendaria: Joseba Azkarraga Etxagibel**

**Leioan, 20...(e)ko .....aren ....(e)(a)n**

**EGILEAREN ONIRITZIA**

## AURKIBIDEA

Sarrera .....	4
1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: aurrekariak eta egungo egoera .....	5
1.1. Krisialdi ekologikoa .....	5
1.2. Naturatik aldendu izanaren arazoak umeengan .....	6
1.3. Aire zabaleko Hezkuntza .....	8
2. Lanaren helburuak .....	12
3. Metodologia .....	12
3.1. Ibilbide metodologikoa .....	12
3.2. Diseinu metodologikoa .....	13
4. Lanaren garapena .....	13
4.1. Baso Eskolak .....	13
4.1.1. Ideiaren oinarriak .....	14
4.1.2. “Bosqueescuela” Cerceda .....	14
4.1.3. “Bihotz-Inguru Baso” Eskola .....	15
4.2. Galdetegiak ikasleei.....	17
4.3. Elkarrizketak gurasoei .....	21
5. Ondorioak .....	22
6. Bibliografia .....	24
ERANSKINAK	
1. eranskina. Richard Louv-en galdetegia.....	27
2. eranskina. Galdetegia umeentzat .....	28
3. eranskina. Galdetegiaren emaitzak .....	29
4. eranskina. Gurasoen elkarrizketak .....	32

## IRAUNKORTASUNERAKO HEZKUNTZA: BASO ESKOLAK

Ane EtxebarriaCarriedo

UPV/EHU

Nabarmena da gaur egungo umeen eta naturaren arteko bereizketa, teknologia berriek, familiek edota bizi diren inguruneak sortua, eta baita eskolak ere. Hori dela eta, hezkuntza eta natura uztartzen dituen hezkuntza-eredua da lan honetan aurkezten dena. Gradu Amaierako Lan honen xedea Baso Eskolen inguruko ikerketa egitea da. Horretarako bi eskola aztertu dira, euretako bat Euskal Herrian kokatua. Gai horren inguruko umeen eta gurasoen iritziak ere ezagutzera emango dira. Honekin guztiarekin nahi izan dugu baso eskolek eskaintzen dituzten aukerak eta mugak aztertzea, gaiarekin jarraitzeko irizpideak ezartzeaz batera.

*Aire zabaleko hezkuntza, natura, Baso Eskola, berrikuntza, Haur Hezkuntza*

La distancia existente entre el niño y la naturaleza es cada vez más evidente hoy en día, una separación que nace en las nuevas tecnologías, las familias y el entorno en el que vive el niño, sin olvidarnos de la escuela. Esa es la razón por la que este trabajo se propone explorar un sistema educativo que fusione la educación y la naturaleza. El objetivo de este trabajo es investigar las Escuelas en el Bosque. Por ello se han analizado dos experiencias, una de ellas en territorio vasco, así como la opinión de diversos alumnos y padres al respecto. Con todo ello nos hemos propuesto analizar las posibilidades y los límites de este modelo educativo, y se han establecido criterios para seguir con esta línea de trabajo.

*Educación al aire libre, naturaleza, Bosquescuela, innovación, Infantil*

Nowadays it is evident that the existing distance between children and nature has increased, the separation begins with new technologies, families and the children environment, without forgetting the school. This is the reason why this paper aims to explore new educational systems to join nature and school. More concretely, the aim of this project is to analyse the Forest Schools. Thus, two experiences have been analysed, one of them in the Basque Country, and also the opinion of various pupils and parents about the matter. The conclusion of those pieces of information appears at the end of the written work with some arguments in favour of forest schools and the recommend guideline to continue working on it.

*Outdoor education, nature, Forest School, innovation, Kindergarten*

## Sarrera

Gauza jakina da egoera ekologiko larria bizi dugula eta horren aurrean aldaketa sakonak eragin behar ditugula. Fernando Cembranos-ek, Yayo Herrero-k eta Marta Pascual-ek (2011) esaten duten moduan, kontsumoa murriztu behar dugu, ondokoak lehenetsiz: zaintzea, kontserbatzea, berrerabiltzea eta konpontzea, ordena horretan eta beste erremediorik ez badago, birziklatzea.

Horrekin batera, gure seme-alabek gero eta kontaktu gutxiago dute naturarekin, lotura hori galtzen ari gara eta egoera aldatu beharra dago. Orduak ematen dituzte etxean telebista ikusten eta ordenagailuarekin jolasten, eta nabarmen leundu da kontaktua ingurunearekin eta naturarekin.

Testuinguru honetan, aldaketa baten premia nabaritzen da, jolasaren garrantzia berreskuratu behar dugu, umeei kalean eta parkeetan jolasteko eskubidea itzuli behar diegu eta baita haientzat pentsatutako eta prestatutako eskola eskaini.

Lan honetan, hezkuntza-eredu berria aztertuko da, umea eta naturaren arteko erlazioa berpizteko asmoan oin hartzen duena. Ikerketa honetan Baso Eskolen aurrekariak azalduko dira, baita Baso Eskolen gaineko analisi deskriptiboa egin ere. Umeei galdetegiak egingo zaizkie naturarekin daukaten kontaktua aztertzeke asmoarekin; eta Richar Louv-ek (2005) bere liburuan plazaratutako hainbat ideia baieztatzeko edo ezeztatzeko, hiru umei Basko Eskola proiektuaren berri emango zaie eta gaiaren inguruko hainbat galdera plazaratuko zaizkie, ama moduan aire zabaleko pedagogien inguruan zer pentsatzen duten jakiteko.

Lan honen helburua ez da ikerketa hutsa egitea, lan honek ikerketaz haratago joan nahi du eta pedagogia berrien edo behintzat desberdinen ezagutza sustatu; izan ere, pedagogia askok eta askok urteak daramatzate funtzionamenduan munduan zehar eta oraindik nahikoa ezezagunak zaizkigu Euskal Herrian. Beraz, hezkuntza-eredu berriak aurkeztu eta gizarteratzea, jendeari gaia hurbiltzea eta ezagutzera ematea, horixe litzateke helburuetako bat; niretzat deskubrimendua izan dena besteen eskura jartzea. Ezin baitugu ahaztu hezteko modu asko daudela.

## 1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: aurrekariak eta egungo egoera

### 1.1 Krisialdi sozioekologikoa.

Antonio Hernández-ek, Águeda Ferriz-ek, Yayo Herrero-k, Luis González-ek, Charo Morán-ek, Alberto Brasero-k eta Ana María Ortega-k (2009) globalizazio eutsiezinaren inguruan hitz egiten dutenean, honako kontzeptu hauek aipatzen dituzte gaur egungo krisi sozioekologikoaren sintoma gisa, besteak beste: biosfera aldatu eta aldaketa klimatikoa eragiten duen gizartea; erregai fosilen gainbehera; biodibertsitatearen galera; eta ezberdintasun sozialen larriagotzea. Eta hauek, aski ezagunak diren ondorioetako batzuk: uraren zikloaren haustea; energia eta materialen agortzea; lurraldearen desegituratzea; biodibertsitatea suntsitzea; edota mundua zaborrez betetzea.

Gizarte industrializatuetao produkzio eta kontsumo-joerak ezin dira mantendu planetaren baliabideak larriki kaltetu gabe, Joseba Martínez Huerta-k (2009) ondo adierazten duen moduan. Horrekin batera kontuan izan behar dugu Wolfgang Wagner-ek (2011) aldarrikatzen duena, hau da, munduko biztanleriaren bosten batek, aberatsenak, planetako gainerakoak baino hiru aldiz gehiago kontsumitzen duela, eta mundu osora hedatzen ari dela kontsumo masiboa, kontsumismoa edo kontsumoan oinarritutako bizi-estiloa. Gure gizarteak mundua begiratzeko eta zaintzeko era aldatu behar du, eta aldaketa hori txikitatik hasi behar da, lehenik eta behin familian eta gero eskolan.

EAEren kasuan Jose Manu Gutierrez-ek, Jon Benito-k eta Ritxi Fernandez-ek (2007) dioten moduan, Ekoeskolak, Ekologia Eskolara edo Eskola Ekologikoak bezalako programak garatu ondoren, 2003. urtean Eskolako Agenda 21 programa jarri zen martxan 41 zentrotan Euskal Autonomia Erkidegoan. Gaur egun 340 ikastetxe baino gehiago dira, ia ikastetxe guztien % 50a. EAEn programa oso hedatuta dago, heldua da eta eredu da estatu osoan zein nazioartean. Eskolako Agenda 21 programaren filosofiak ez du eskolako zereginak ugarituko dituen programa bat eskaintzea bilatzen, baizik eta esparru berri bat osatzea eta esparru horretan garatzen diren esperientzia on guztiak barne hartzea; era berean, ikastetxearen eta ingurunearen kudeaketa iraunkorarekin erlazionatutako elementuak, curriculumaren berrikuntza eta hezkuntza komunitatearen partaidetza sustatzea bilatzen da. Horrekin guztiarekin batera lortu nahi da eskolak udalerrriaren kudeaketan parte hartzea. Edozein kasutan, gaur egun badira Eskola Agenda 21 programatik harago doazen eskolak eta horiek dira lan honetan aztertuko direnak.

### 1.2. *Naturatik aldendu izanaren arazoak umeengan.*

David Orr-ek (2004), ingurune-ikasketen irakasleak, biofobia izena eman zion mundu naturalari eta bertan bizi diren izaki bizidun guztiekiko higuinari. Oso gaitz arrunta ei da hirigune handietan hazi diren pertsonen artean, telebista, ordenagailu jolasak, merkatal zentroak eta landareak apaingarri moduan dituzten pertsonengan. Pertsona biofobikoek nahiago dituzte gizakiak egindako tresna eta eraikinak, naturala denaren aurrean alergia izan ohi dute eta mendira edota ingurune natural batera badoaz, hainbat tresna eramaten dituzte. Gaitz hori pairatzen duten pertsonak, honako pentsamenduak izaten dituzte:

- Mundu naturala guztiz materiala eta bizi bakoa da, ez du inongo errespeturik merezi.
- Gizakion eta animalien arteko bereizketa egin behar da.
- Natura hornidura biltegi handia da eta, beraz, objektibotasunez erlazionatu behar gara biltegi horrekin.
- Gizakiak natura baliogarri den zerbait bihurtu behar du, diru-sarrerak bermatzen dituen zerbait.

Biofobiaren antonimo bezala biofilia dugu, Edward O. Wilson-ek (1984) “beste bizidunei hurbiltzeko beharra” bezala definitu zuena. Urte batzuk lehenago, Erich Fromm psikoanalisa alemaniarrek ideia horren inguruan hitz egin zuen. Horrelako izaerak berma dezake gure biziraupena lur planetan, osasun mentalaren eta fisikoaren adierazle izateaz gain. Hipotesi horrek iradokitzen du gizakion garuna programatuta dagoela beste izaki-bizidunekin erlazionatzeko. Horri esker gizakiak ez diren izakienganako arreta eta enpatia garatzen dugu.

Indigenek errespetuzko harremana izan dute naturarekin, guk aitzinean egiten genuen bezala. Ulertzen zuten behar beharrezkoak zirela bizirauteko landare eta animaliak, ibaiak eta mendiak, zerua eta lurra. Gure arbasoek, harreman estua zeukaten naturarekin, lurra lantzen zuten eta baita errespetatu ere. Erritmo naturalak errespetatzen zituzten frutak eta barazkiak landatzeko unean. Gaspar Sala-k (2012) azaltzen duen bezala, negu amaieran eta udaberri hasieran uhazak, tomateak, piperrak eta porruak landatzen dira besteak beste; udaberri-uda tartean, ostera, marrubiak, kalabazak, ekiloreak eta txitxirioak; eta udazkenean babak, ilarrak eta dilistak landatu behar dira. Baina, gaur egun, frutak eta barazkiak urte osoan zehar nahi ditugu, negutegietan sortutakoak eta osagai kimikoz beteak. Halere, badaude egoera aldatu nahi dutenak eta

hasi dira sortzen, besteak beste, gure hiri eta herrietan “hirietako ortuak” deitutakoak. Oro har esanda, hein batean hasi gara konturatzen naturarekiko daukagun harreman faltak zer nolako ondorioak ekartzen dituen gure osasunean eta baita gure seme alaben osasunean, pantaila baten aurrean orduak eta orduak ematen dituzten pertsona horiengan.

Beraz, gure arbasoek naturaren erritmoak jarraitzen zituzten, eguna eta gaua, baita urtaroak ere. Cembranos-en, Herrero-ren eta Pascual-en (2011) esanetan, bizitza ulertzeak, bere erritmoa onartzea esan nahi du. Bizitzaren erritmoak gehienetan geldoak dira, baina moteltasuna beharrezkoa da aldaketak gerta daitezen eta zikloak itxi daitezen. Antzeko zerbait gertatzen da umeekin. Emmi Pikler-ek (1969) aldarrikatzen zuen bezala, ume guztiak ez dira hasten momentu berdinean hitz egiten edota ibiltzen, eta haien erritmo naturalak errespetatu behar ditugu. Pikler-en (1969) esanetan, alferrikakoa eta kaltegarria izan daiteke haur bati jesarraraziz jesartzen irakastea, zutunik jarritz zutunik jartzen irakastea, etab.; haurrak bere kabuz eta bere erritmora ikasi ahal du, eta berezko ekimenean oinarrituz kalitate hobeko emaitzak lor daitezke, segurtasuna handituz eta poztasunez betetako saialdiekin. Irakaskuntzan ere umeen beharrianak hartu behar dira kontuan, haien hazkuntza errespetatu. Rebeca Wild-ek (1999) Maria Montessoriren hitzak aipatuko ditu: eskubidea eman behar zaio haurrari indibidualki jarduteko, bere zereginak modu askean erabaki ditzan eta bere erritmo naturala jarrai dezan.

Eskolen inguruan hitz egiten hasi baino lehen, ezinbestekoa iruditzen zait adimen anitzen teoriaren inguruan hitz egitea, baduelako harremanik gure gaiarekin. Howard Gardner-ek, irakasle-eskolako irakaslea Harvard unibertsitatean, adimen anitzen teoria garatu zuen 1983. urtean. Berak argudiatu zuen adimen-kozientean oinarritutako emaitzak mugatuegiak zirela eta, beraz, adimen anitzen teoria aurkeztu zuen, 7 adimen desberdinekin:

- Hizkuntza-adimena.
- Adimen logiko-matematikoa.
- Adimen musikala.
- Adimen zinetiko-korporala.
- Adimen espaziala.
- Pertsonarteko adimena.

- Pertsona barneko adimena.

Geroago beste bat gehitu zuen, zortzigarren adimen bat, adimen naturalista bezala ezagutzen duguna. Gardnerek honela azaldu zuen:

The core of the naturalist intelligence is the human ability to recognize plants, animals, and other parts of the natural environment, like clouds or rocks. All of us can do this, some kids (experts on dinosaurs) and many adults (hunters, botanists, anatomists) excel at this pursuit. While the ability doubtless evolved to deal with natural kinds of elements, I believe that it has been hijacked to deal with the world of man-made objects. We are good at distinguishing among cars, sneakers, and jewelry, for example, because our ancestors needed to be able to recognize carnivorous animals, poisonous snakes, and flavorful mushrooms. (Richard Louv, 2005:72)

Adimen naturalista, espezieen artean, edota objektuen eta pertsona multzoen artean erlazioak antzemateko eta desberdintasunak eta berdintasunak ezagutu eta ezartzeko adimen bezala ulertzen du Heike Freirek (2011). Hala ere, umeei naturarekin harreman estuagoa izan beharrean, gero eta harreman gutxiago daukate. Richard Louv-ek (2005) *“Nature-Deficit Disorder”* kontzeptua lehenengo aldiz erabili zuen (ingurune naturaletan egoteak dakartzan onurak aztertu dituen ikerketa psikologikoetan oinarrituta) naturarekin kontaktua galtzeak hainbat kalte dakarzikigula azpimarratuz. Horrela, gaurko hainbat gaitz multzokatu zituen, haurrengan eragin zuzena dutenak eta jatorria ingurune naturalarekiko harreman faltan izan dezaketenak; besteak beste: depresioa, estresa, TDHA edo antsietatea.

### *1.3. Aire zabaleko hezkuntza.*

Behin basoari izan genion beldurra. Otsoaren basoa, ogroaren basoa, iluntasunarena. Gal gintezkeen lekua zen. (...) Baina etxean artean babestuak sentitzen ginen, hirian, auzokideen artean. Leku honetan lagunak bilatzen genituen eta elkarrekin egoteko topatzen ginen. (...) Eraldatze izugarria egon da (...) basoa ederra bihurtu da, argitsua, amets eta desiren arrazoia; hiria zatarra bilakatu da, grisa, oldarkorra, arriskutsua, higuigarria. (...) Hiria gure ipuinen basoa bilakatu da. (Francesco Tonucci, 1996:21)

Ez da bakarrik naturarekin kontaktua galdu eta horrek kalteak eragin dizkigula, umeei etxean izan nahi ditugu, ikaratu egiten gaitu umeei kalera joateak edota eskolara bakarrik joateak. Baina, arazoa da ideia horrek gu ikaritzen gaituela, ez haiek. Haiek



kalean egon nahi dute, korrikan, jolasten eta zikintzen. Heldu gehienek, Richar Louv-ek (2005) adierazten duen moduan, irribarre batez gogoratzen dituzte gaztaroen naturan igarotako denbora: ibiltzen eta aztertzen, urarekin jolasten, maskorrak hondartzan hartzen eta etxera eramaten, barraskilo lasterketak egiten, urtaro aldaketak sentitzen, zuhaitzetan etxeak eraikitzen, etab. Gaurko umeei ez diegu askatasunik ematen hori bizitzeko, baina gero ulertarazi nahi diegu natura zaindu behar dela, gure esku dagoela eta errespetuz tratatu behar dugula. Ironikoa da, natura zaindu behar dutela esaten diegu baina askok ia-ia ez dakite natura zer den, astea eskolan ematen baitute, eta arratsaldean futbola, igeriketa, margolaritza, musika, etab. Etxera heltzen direnean, etxerako lanak, eta gainera asteburuak etxean igarotzen dituzte pantaila baten aurrean<sup>1</sup>.

Ingalaterran egindako inkesta baten arabera<sup>2</sup>, 70. hamarkadatik umeek jolasteko etxetik aldentu ahal diren distantzia %90 txikiagotu da eta denbora libre murriztu egin da astean 15 ordura; %29ak baino ez du etxetik kanpo jolasteko aukera (orain dela 20 urte %70 zen bitartean); eta 7-12 urte tarteko %51ari ez diote zuhaitz batera igotzen uzten. Espainian, ostera, eskola adinean dauden umeen artean (8-12 urte) %30a baino ez doa eskolara bakarrik, Heike Freirek (2011) ezagutzera eman dituen datuen arabera. Istripuei dagokienez, gehiengoa etxeetan gertatzen dira (erorialdiak, mozketak, pozoinketak eta asfixiak), batez ere sukalde, eskailera eta komunetan.

Cembranos-ek, Herrero-k eta Pascual-ek (2011) dioten bezala, gero eta beharrezkoagoa da noizbehinka esperimintatzea zementu bako lurzoruetatik ibiltzea, orubeetan jolastea, teilaturik gabe ikastea, bizikleta garraio bide bezala erabiltzea, hotz eta beroaren eraginpean egotea edota lurzoru irregularretatik korrika ibiltzea. Umeek, gazteek, helduok natura behar dugu eta are gehiago bizitzeko lehenengo urtean gure nortasuna eraikitzeke eta gorputza modu egokian garatzeko. Rivkin-ek (1997) esaten duen moduan, umeek garapen fisiko azkarra pairatzen dute, sozializatzeko eta hitz egiteko ahalmenak garatzen dituzten bitartean, horregatik, aukera ugari eskaintzen dizkien ingurunea behar dute. Hori dela eta, ingurune naturala zenbat eta aberatsagoa (adb. harriak, ura, kolore eta soinu desberdinetako elementuak eta hainbat jardura modu librean burutzeko aukera zabala), emaitzak gero eta hobeak izango dira haurren garapen fisiko, kognitibo eta emozionalean.

---

<sup>1</sup> Holakoak astelehenero entzuten nituen Begoñazpi Ikastolan LH-ko 2.mailan egindako praktikaldian.

<sup>2</sup> Play England, 2010 [www.playengland.org.uk/media/156170/1004-play-england-evaluation.pdf](http://www.playengland.org.uk/media/156170/1004-play-england-evaluation.pdf) (Kontsulta: 2015-4-29an)

Aurreko paragrafoan aipatu den bezala, naturak garrantzi ukaezina dauka, hala eta guztiz ere, ahalegintzen gara gure seme-alabak naturatik aldentzen, zikina eta ezezaguna den horretatik at mantentzen, aire zabaleko ekintza eta jolasez aldentzeaz batera. Psikologo askok azpimarratu dute jolasaren garrantzia haurraren garapenean, tartean dira Piaget (1993), Vigotsky (1979) edota David Elkind (2007), izen gutxi batzuk ematearren. Heike Freire-k (2011) dio jolasa ezinbestekoa dela oreka emozional eta energetikoan, baita umeen ahalmen intelektual, sozial eta sortzailea garatzeko ere. Haatik, herri eta hirietan aurkitzen ditugun umeentzako parkeak, asfaltoz eta jolasteko plastikozko estruktura aurrefabrikatuz eginda daude, baita eskoletako jolasketak ere. Umeei naturarekin kontaktuan egoteko eskubide guztia kendu diegu. Tonuccik (1996) esaten zuen egin behar dugun lehenengo gauza dela umei protagonista rola ematea, hitza ematea eta haien iritziak entzutea. Bide horretatik jolasgune eta parke egokiagoak lortuko ditugu, umeek ez baitituzte plastikozko estrukturarik nahi, umeek harriak, ura, area, hostoak eta halakoekin jolastu nahi dute. Zenbatetan ikusi izan dugu Gabonetan jostailu koloretsu eta zaratatsu bat oparitzea, merkatuko onena bere adimenak garatzeko, eta haurra kartoizko kutxarekin edota paperarekin jolasten hastea.

Abiapuntu horretatik, ideia berri bat ageri zaigu, jolasa eta irakaskuntza ingurune natural batean uztartzen dituen. Hau da, aire zabaleko hezkuntza. Jakin badakigu irakaskuntza burutzeko hainbat pedagogia daudela (Montessori pedagogia, Emmi Pikler-Loczy pedagogia, Waldorf pedagogia, Pedagogia berdea, Pestalozzi pedagogia, Amara Berri sistema, etab.), eta bere aldetik, aire zabaleko hezkuntzak ondoko bi ezaugarriak ditu: alde batetik, haurraren hazkuntzarako (emozionala, kognitiboa, psikomotorea eta soziala) gaitasun naturalak aintzat hartzen dituzten pedagogiak erabiltzen ditu; eta, bestetik, natura erabiliko du baliabide pedagogiko nagusi modura. Heike Freire-k (2011) hainbat herrialdeetan dauden aire zabaleko eskolak aztertu zituen:

- 50. hamarkadako azkeneko urteetan, Suedian eta Danimarkan, lehenengo jarduera hezigarriak egiten hasi ziren ingurune natural erregular batean, “*Skogsmulle*” eskolak. Eskandinavia osotik hedatu ziren eta 80. hamarkadarako hezkuntza modelo formal bat ziren.
- “*Waldkindergarten*” eskolak, 60. hamarkada amaieran hasi ziren agertzen Alemanian, eta 1993. urtean gobernu federalak ofizialki aitortu zituen. 2005. urtean, 450 zentro baino gehiago zeuden herrialde osotik sakabanatuta, horietako

batzuk irakaskuntza mistoa burutzen zuten, horrek esan nahi du ikasleak goizak basoan igaroko dituztela eta arratsaldeak ohiko eraikinetan.

- Norwegian, “*The living school*” proiektuarekin lan egiten dute, ikasleek behintzat asteko egun bat eskolatik kanpo igarotzen dute. Bizi diren tokiko inguru naturalera hurbiltzeko asmoz, eskolak lankidetzara programa bat dauka inguruko baserritarrekin. Horrela, ikasleak astean behin landetxeetara doaz, arrautzak batzeko, behiak eta ardiak jezteko, barazkiak landatzeko, ortua zaintzeko, etab. Ekintza horien bidez umeei argi ikusten dute esfortzu eta emaitzaren arteko lotura, hutsegite baten ondorioak eta lortutakoagatik poztasuna. Eskuekin trebetasunak garatzen dituzte, taldean lan egiten eta guztion artean arazoak konpontzen ikasten dute, frustrazioak onartzen eta modu egokian bideratzen dituzte, baita naturarekiko ulermena eta harremanak sendotzen ere.
- Ingalaterran, Galesen eta Eskozian “*Forest Education Initiative (FEI)*” egitasmoak irakaskuntza naturan sustatzen du, hau da, basora joatea eta bertan klasea ematea. Programa honetan, ikasleek 6 hilabete eman ahal dituzte egunero basora joanez. Horrelako eskola batean parte hartu eta halako esperientzia ostean ikusitako emaitzak oso onak omen dira, osasunean, adimen ahalmenean, segurtasunean eta autoestimuan.

Estatu espainiarrean hasi dira horrelako eskolak sortzen, aipatzekoa da Madrilen 2015-2016 ikasturtean ateak zabalduko dituen Bosquescuola Cercedan (Madril). Gurean, Donostian hasi berria den Bihotz-Inguru natura elkarteak dugu. Baina oraindik bide luzea daukagu aurretik. Bitxia da: Europako iparraldeko herrialdeetan, nahiz eta klima gogorragoa izan, aire zabaleko pedagogia erabiltzen duten eskolak gero eta arruntagoak dira; hegoaldean, berriz, ez dugu horrelako eskola askorik aurkituko. Horrekin batera Herder-ek (1996) esaten zuena dugu: gurasoen sinesmena hezkuntza instituzionalizatuan ia-ia hautsiezina da eta modu sistematikoan belaunaldiz belaunaldi transmititzen doa; herritarren ezagutzak, hau da, jasangarritasunetik hurbilen daudenak, eskola curriculum ofizialetik kanpo geratzen diren bitartean (Cembranos, Herrero eta Pascual, 2011).

## 2. Lanaren Helburuak

Marko teoriko eta kontzeptualean aipatutakoa aintzat hartuz, gauzatuko den ikerketaren abiapuntu nagusiak honako hauek dira.

*Helburu nagusia:*

- Hezkuntza eta natura modu berezi eta berritzailean uztartzen dituen eskola ereduaz aztertzea, Baso Eskola giza ezagutzen dena, bereziki erreparatuz EHn duen adierazpide aitzindarian (Bihotz-Inguru proiektua).

*Helburu konkretuak:*

1. Hurbilpena egin natura eta umeen arteko erlazioari ohiko eskolan, gaur egungo errealitatea zein den ezagutzeko.
2. Baso Eskola ereduaz aztertu, aire zabaleko hezkuntzaren adibide gisa.
3. Bihotz-Inguru Natura elkartearen oinarri teoriko eta praktikoak aztertu.
4. Eskola eredu horren inguruko irakasle eta gurasoen iritzia ezagutu.

**3. Metodologia***3.1. Ibilbide metodologikoa*

Lan hau aurrera eroan ahal izateko, hainbat pausu eman behar izan ditut. Heike Freire-k 2011-an idatzitako “Educar en verde” liburua irakurri ostean, eta lehengo aldiz aire zabaleko pedagogia eta batez ere Baso Eskolen inguruan irakurri nuenean, horren inguruan lan egiteko beharra sentitu nuen, informazioa zabaltzeko beharra. Liburua abiapuntutzat hartuta, interneten informazioa bilatzen hasi nintzen. Zoritzarrez gure herrialdean ez dagoenez eskola mota horren adibiderik, ez da erraza informazioa liburuetan topatzea, eta tutorearekin hitz egin eta gero Donostian zabalduko duten eskola aztertzea erabaki nuen. Lan hau burutzeko honako pausu hauek eman ditugu:

- Ikerketa lan honek eroan nau beste urte batzuetako lanak aztertzeraz.
- Bihotz-Inguru Baso Eskola aztertzeko Donostiara joatea. Eskola sortzen ari dira eta oraindik funtzionamenduan ez dagoenez, udan egin dituzten udalekuetara gerturatu naiz, informazioa jaso eta hango hezitzaile eta profesionalekin hitz egitera.
- Philip Bruchner Madrilgo Baso Eskola antolatzen dabilen hezitzaile alemaniarrekin kontaktuan jarri naiz (tardean, Baso Eskola pedagogiaren formakuntza tailerretan parte hartzeko gonbidapena luzatu zidan, baina data arazoengatik ezin izan nuen parte hartu).
- Tonucci-ren (1996) “umeei hitz egiteko aukera eman behar zaiela” ideian oinarrituz eta Heike Freire-ren (2011) eta Richard Louv-en (2005) ideiak aintzat hartuz, umeentzako galdetegiak prestatu ditut. Galdetegi horiek Bilbon, Etxebarrin eta

Zornotzako eskoletan 4. mailako eta 5. mailako umeak bete dituzte. Horrela umeen eta naturaren arteko erlazioaren inguruko datu esanguratsuak jaso ditugu hiria eta herrien arteko desberdintasunak ikusiz.

- Baso Eskolen ideien inguruan gurasoekin elkarrizketak egin ditut, haien iritzi, beldur eta zalantzak ezagutzeko asmoz.
- Baso Eskoletan egon ondoren, bertako ikasleen Lehen Hezkuntzako egokitzapena ikertzen duen lana aztertu dut.

### 3.2. Diseinu metodologikoa

Patxi Juaristi-ren (2003) esanetan, teknika kualitatiboak eta kuantitatiboak bereizteko joera dugu eta, zenbait kasutan, elkarren aurka aurkezteko joera ere bai, nahiz oso egokia ez izan; egiaz, Gizarte Zientzien aurrerabidea oztopatzen duela pentsatzen du. Lan honetan bi metodologiaren arteko konbinazioa egin dugu, honako teknika hauek erabiliz:

- Elkarrizketa sakonak, Baso Eskolen gaineko jarrerak aztertzeko. Elkarrizketatuak Donostiako ama bat, Basauriko ama bat eta Etxebarriko ama bat izan dira, horrela gaiaren inguruko ikuspegi desberdinak jasotzea bilatu da.
- Inkesta, geuk sortua. Galdetegiak egin ditugu Bilboko Begoñazpi Ikastolan, Zornotzako Andra Mari Ikastolan eta Etxebarriko Kukullaga Ikastetxean, Lehen Hezkuntzako 4. eta 5. mailako ikasgeletan. Guztira 115 ikasleri egin diegu inkesta.

Herria	Ikasle kopurua		
	4. maila	5. maila	Guztira
Etxebarri	25	17	42
Zornotza	15	14	29
Bilbo	25	19	44

- Eduki azterketa eta iturri ez zuzenen analisisa, aztertuz beste pertsona edo erakunde batzuek bildu, sortu edota gorde dituzten estatistikak, testuak, dokumentuak eta materialak.

## 4. Lanaren garapena

### 4.1 Baso Eskolak

#### 4.1.1. *Ideiaren oinarriak*

Cembranos-ek, Herrero-k eta Pascual-ek (2011) ohartarazten dute gaur egungo eskolak eremu fisiko mugatuan eta espezialisten eskuetan daudela, eta ondorioz bertoko kulturak eta herri ezagutzak eskoletatik kanpo geratu dira, tolesgabetasunarekin eta sineskeriekin erlazionatu baitira. Badaude gaur egun bestelako eskola ereduak garatzearen aldeko ekimenak. Batzuetan, eredu alternatibo orokorrak dira. Beste batzuetan ohiko eskoletan txertatuko diren ekintza-ildo zehatzagoak aurkituko ditugu (Freire, 2011, Herrero et al, 2011): landetxe eskolak, irteerak, eskola ortuak, hosto bilketak, sukalde tailerra eta baita lan honen hasieran aipatu dudana Agenda 21 proiektua. Txikitatik ezagutu dugun eskola, umeei naturan egoteko eskubidea kendu diena, modu batean edo bestean zaharkituta geratzen ari da. Litekeena da Baso Eskolak izatea norabide horretan kokatzen den eredurik anbiziotsu eta integralenetako bat.

#### 4.1.2. *“Bosquescuela” Cerceda*

Bosquescuela ekimenak Felix Rodriguez de la Fuente Fundazioaren laguntzarekin atearik zabalduko ditu Madrilgo mendietan, Cercedan, 2015-2016 ikasturtean. 2013ko irailean homologatu eta baimendu zuen Madrilgo Hezkuntza, Gazteria eta Kirol sailak. Ekimen honek Espainian aire zabaleko hezkuntza sustatu eta ezarri nahi du, beti ere hezkuntza arautu moduan, 3 eta 6 urte bitarteko umeen formazio integralera zuzendutakoa.

Philip Bruchner hezitzaile alemaniarrek aire zabaleko hezkuntzan 10 urteko esperientzia du eta Bosquescuela erakundeko webgunean agertzen den informazio orrian ikus daitekeen moduan, ([www.bosquescuela.com](http://www.bosquescuela.com)), Baso Eskoletan jarduera guztiak basoan, zelaian edota hondartzan burutzen dira eta hau da proiektu horren alderdirik berritzaileena. Ez dituzte aurrez egindako jostailuak erabiltzen eta material didaktiko gehiena ingurune naturaletik dator. Ez dituzte instalazio tradizionalik erabiltzen, etxola txiki bat daukate materialak gordetzeko, arratsalde partean lo egiteko eta ekaitzetatik babesteko. Eurria zein eguzkia egon, basora doaz, baina eguraldi oso txarrarekin etxolan geratzen dira. Erabiltzen duten metodologia oinarritzko lau zutabeetan oinarritzen da:

- Jolas librea. Ikasleak askatasun osoz erabakitzen dute norekin eta non jolastu nahi duten.

- Klaseak. Curriculum ofizialean oinarritzen dira matematika eta ahozko eta idatzizko ulermenari berebiziko garrantzia emanez.
- Ingurunea. Ikasketa eredu honetan, hainbat txango antolatzen dira ikasleak haien ingurune hurbilera gerturatzeko xedearekin (liburutegia, ingurune herriak, gurasoen lantegiak ...).
- Elkarrizketa. Maila guztietan sustatzen da, bai ikasleen artean, bai ikasle-irakasleen artean. Horrela, ikasleak dituzten interes eta botereak haien kabuz ezagutzeko aukera ematen zaie, intelektualki eta emozionalki garatzen doazen heinean.

Aipatzekoa da Baso Eskola honetako 25 ikasleak, 3-6 urte bitartekoak, elkarrekin ikasiko dutela, ez dira adinaren arabera banatuta egongo eta irakaskuntza ingelesez eta gazteleraz egingo da. Bruchner-en (2015) esanetan, aire zabaleko hezkuntzak dakartzan onuren artean aipatzekoak dira ondokoak:

- Komunikazio eta hizkuntza gaitasunak hobetzen dira.
- Garapen psikomotorearen hobekuntza.
- Arriskuak ezagutzea eta ardura barneratzea.
- Sistema immunologiakoaren hobetzea.
- Talde lana sustatzea.
- Diziplina eta taldeko parte izatearen sentimendua areagotzea.

#### 4.1.3. *“Bihotz-Inguru” Baso Eskola*

Haurraren hazkuntzarako gaitasun naturala aintzat hartuko duen hezkuntza eremu seguru bat sortzeko jaio da Bihotz-Inguru Baso Eskola. Natura bidelagun izanik, haurraren askatasuna eta erritmo indibiduala errespetatuko dira, bere hazkuntza (emozionala, kognitiboa, psikomotorea eta soziala) bete betean garatzeko asmoarekin. Madrilen dagoen Baso Eskola ez bezala, Donostiako erakundea irabazi asmorik gabeko erakundea da, ez du homologaziorik bilatzen eta curriculum betetzeari ez dio hainbeste garrantzirik ematen. Beraiekin kontaktuan jarri garen unean, 2015eko Baso-udalekuak

antolatzen ibili dira Uliako basoan, Cristina Enea Fundazioaren laguntzarekin, baita Philip Bruchneren laguntzarekin ere.

Beraz, kasu honetan ere Baso Eskola gelarik gabeko haur hezkuntza ereduaren oinarritzen da eta 3-6 urte bitarteko haurrei zuzendua dago. Aire zabaleko hezkuntza ereduaren proposamena ez da natura eskolara eramatea; ez eta eskola bere ingurugiroari gehiago irekitzea (txangoak mendira, hondartzara, natur parkeetara, eta abar). Hezkuntza eredu horren helburua ez da natura errespetatzen eta maitatzen irakastea, nahiz eta Baso Eskolaren ondorio nagusietako bat horixe izan. Helburuak dira natura eta espazio naturalak eskola bihurtzea, ikaste prozesuan natura baliabide pedagogiko nagusia bilakatzea, eta haurra eta naturaren arteko interakzioen bidez haurraren garapen integrala sustatzea.

Hirigunean bizitzea aukeratu izanak ez du esan nahi haien ingurune naturalari uko egin nahi diotenik. Donostia bezalako eredu urbanoan, mendiz, basoz eta itsasoz inguratuta daudelarik, hiria eta natura integratu nahi dituzte. Beraz, proiektuaren aldarria da elkarri begira jartzea eredu urbanoa eta inguruko mendiak, basoak, zelaiak eta horietan bizilekua duten bizidun oro, maila berean eta errespetuz.

Aire zabaleko hezkuntza proiektua denak hiru ardatz pedagogiko ditu:

- Konfiantza. Konfiantzaren pedagogia haurraren berezko hazkuntzarako gaitasunean oinarritzen da. Haurraren berezko konfiantza, beste bi zutabeekin osatzen da: jolas librea eta aire zabaleko interakzioa.
- Maitasuna, errespetua eta onespina. Haurraren berezko konfiantza osatzeko ezinbestekoak dira helduon maitasuna eta onespina, haurrari ahalbidetzen dio auto-erretratu positiboa eraikitzea eta, ondorioz, autoestimu onaren eta zorientasunaren giltzarri dira.
- Ikuspegi sistemikoa. Gure nortasuna eta izaera taldetasunari lotuta garatzen ditugu, eta ezinbestekoa da haurrak sentitzea taldearen parte garrantzitsua dela.

Esperientzia honetan garrantzia handia ematen zaio jolas libreari, honako ezaugarri hauekin: borondatezkoa da, helbururik gabekoa, bat-batekoa, ez gidatua, egiturarik



gabekoa eta etenik gabekoa. Helduak gidari rolari uko egiten dio eta bidelagun baten rola bereganatzen du. Bere zeregin nagusiak dira behaketa eta entzute aktiboa. Jolasa noiz hasi eta noiz bukatzen den erabakitzen du, ez ditu haurrak eta berain jolasak epaitzen, behaketa aktiboa egiten du haurraren ezinbesteko espazioa errespetatuz eta bakarrik sartuko da baimenik gabe jolasean arriskuan dagoenean haurraren edo beste norbaiten segurtasuna.

#### 4.2. Galdetegiak ikasleei


Galdetegiak hiru eskola desberdinetan egin dira; Andra Mari Ikastolan Zornotzan, Etxebarriko Kukullaga ikastetxean eta Bilboko Begoñazpi Ikastolan, guztira 115 ikasleko lagina izan dugu. Galdetegia egiteko Richar Louv-ek (2005) proposatzen dituen umeentzako eztabaida puntuak jarraitu dira, baina egokitzapenak egin dira aldi berean: galdera batzuk eraldatu ditut hain konplexuak ez izateko, eta beste batzuk galdera itxi bihurtu ditut datuak modu errazago batean bildu ahal izateko. Hala ere, ahalegindu naiz galdera irekiak mantentzen eta eskoletara joan naizenean, ikasleei gogoratu diet ez daudela erantzun zuzen edo okerrik, eta idazten duten guztia baliogarria izango dela niretzat (galdetegi originala 1go eranskinean dago eta nik erabili nuen galdetegia 2. eranskinean). 3.eranskinean bilduta daude galdetegi honen bidez jaso diren datu zehatzak eta ondorengo lerroetan aztertuko dira emaitza nagusiak modu narratiboan.

Natura zer den galdetzean, ikasleen %66ak ingurune naturaleko elementuak erabiltzen ditu natura deskribatzeko: zuhaitzak, ibaiak, hondartzak, mendiak eta abar. %25ak beste erantzun batzuk eman ditu eta aipatzekoak dira etengabe errepikatu diren erantzun hauek: “bakarrik hasten diren gauzak”, “gizakiak egin ez duen zerbait”, “bizidunen tokia”, “inguratzen gaituena”. % 9ak ez du erantzun.


Naturarekin kontaktuan egon diren azkenengo aldiaren inguruan galdetzen diegunean, % 77ak erantzun du azkenengo astean edota azken hilabetean egon direla, eta %22ak ez dutela gogoratzen edo azken urte honetan joan direla. Kontuan hartu behar da galdeketak kurtso amaieran egin direla eta, beraz, eskola batzuetan kurtso amaierako txangoarekin bat egin dutela, Begoñazpi Ikastolan adibidez: 44 ikasletik 40 ikaslek erantzun dute azkenengo astean naturarekin kontaktuan egon direla (%90a), izan ere 5. mailakoek txangoa izan dute eta 4. mailakoek Arantzako Aterpean egon dira.

Bideojokoen izenak eta animalien izenak galdetzerakoan, Richar Louv-ek (2005) bere liburuan adierazten duen ideia bat aztertu gura izan dugu. Louv-ek dio gaur egungo

umeeek bideojoko eta marrazki bizidunen izen asko dakizkitela, baina erantzun eskasa jaso ohi dela animalien edota landareen inguruan galdetzen diegunean. Hona hemen guk lortu ditugun emaitzak:



1. grafikoa. Bideojoko eta marrazki bizidunen izenak eman dituzten ikasleen kopurua.




2. grafikoa. Landare eta animalien izenen inguruan jasotako erantzunak.

Grafikoetan ikus daitezkeen moduan, bideojoko eta marrazki bizidunen izenen inguruan galdetzen diegunean, ikasleen % 91k erantzun egiten dute; inguruko animalia eta landareen inguruan galdetzean, %57ak baino ez du erantzun egokia ematen, %26ak atzerriko animalia eta landareak aipatzen ditu (kaktusa, lehoia, krokodiloa, eta abar). Euskal Herriko animalia eta landareak aipatu dituztenak eta atzerrikoak aipatu dituztenak gehituta ere, ez ginateke bideojoko eta marrazki bizidunen izen zerrendara helduko, % 83a lortuko genukeelako.


Hala ere, Euskal Herriko animalia eta landarediaren inguruan jasotako erantzunak ez daude oso landuak. Erantzunik osoenak Zornotzan bildu dira, Zornotzako ikasleen %83k ondo erantzun du, Etxebarrin %33k eta Bilbon %59k. Beraz, aldeak handiak dira eskolen artean. Horren arrazoia eskoletan lantzen diren gai desberdinak izan daiteke eta gai horiei ematen zaien garrantzia. Kontuan hartzen badugu Zornotzako ikasle askok azeri-buztana sendabelarra aipatu dutela Euskal Herriko landare gisa, pentsa genezake hainbestetan errepikatzen den erantzuna eskolan ikasi dutela edota herrian egunero ikusten dutela. Azeria, astoa, untxia, behia, ardia, zaldia eta abar, ingurune hurbiletan

aurkitu ahal diren Euskal Herriko animaliak ere askotan aipatzen dituzte beharbada Zornotzak mendi ingurunea hurbilago duelako, Bilbok eta Etxebarrik ez bezala.

Galdetu diegu ikasleei naturan zeri dioten beldur gehien eta zer maite duten gehien, eta animaliak eta landareak dira erantzun gehien ardatzak. Askok aipatu dituzte ohiko imaginarioan beldur iturri diren animaliak, nahiz gurean halakorik ez daukagun: lehoiak, panterak, krokodiloak eta marrazoak. Iluntasuna eta kutsadura ere beldur iturri gisa ageri dira, baina %1,7ak baino ez dio beldurra zuhaitzetatik erortzeari. Zer maite duten galderari dagokionez, argitasuna eta ingurune naturalak maitatzen dituzte, bestelako animalia eta landareekin batera.



3. grafikoa. Klaseak emateko ikasgela edo natura aukeraketa.



4. grafikoa. Zuhaitz batera igo diren ikasleen kopurua grafikoki adierazita.

Galdeketa erantzun duten umeen %92ak nahiago du klaseak ingurune natural batean eman ikasgelan baino, eta ikasleen % 91ak aitortzen du noizbait zuhaitz batera igo dela.



5. grafikoa. Naturan daudenean ikasleen sentimenduak biltzen dituen grafikoa.

Goiko grafikoa aztertuz gero, ikusiko dugu adierazitako sentimendu gehienak sentimendu positiboak direla. Aztertutako umeak “oso ondo”, “lasai”, “aske” eta “erlaxatuta” bezalako hitzak erabiltzen dituzte naturan daudenean zelan sentitzen diren azaltzeko. Aldi berean, aipatzekoa da batzuek ez dutela erantzunik eman, eta erantzun dutenen artean batek baino gehiagok erantzun bat baino gehiago eman duela, “oso ondo eta aske” adibidez (kasu horietan “aske” moduan zenbatu dut erantzun konplexuagoa delako). Soilik bi erantzun egon dira “txarto” eta “aspertuta” esanez, biak Etxebarrin, baina ez dute zergatia azaldu.



6. grafikoa. Ikasle bakoitzaren eskolaz kanpoko ekintzen kopurua adierazten duen grafikoa.

Azkenik, eskolatik irteten direnean ikasleek egiten duten ekintza kopuruari egingo diogu hurbilpena. Grafikoa ikus daitekeen moduan, inkestan parte hartu duten ikasleen gehiengoak eskolaz kanpoko ekintzaren bat egiten du: Etxebarrin %76ak, Zornotzan %93k eta Bilbon %89k. Beraz, esan dezakegu ekintza gehien egiten duten ikasleak Zornotzakoak direla (aipatzekoa da mutilen artean ekintzarik errepikatuena futbola dela).

Datuokin ikusten dugu ohiko euskal eskoletan asko hobetu daitekeela naturarekiko ezagutza eta harremana. Gure bizi erritmo eroak hautsi egin ohi du naturarekin, lasaia eta geldoa den horrekin, daukagun harremana. Berreskuratze lan hori guraso eta eskolen eskuetan dago, gure inguruko animalia eta landareen izenak irakatsi behar diegu, baina ez liburu batean agertzen direnak, baizik eta naturan daudenak mendira, basora, hondartzara eta belardietara joanez. Laburbilduz, esan genezake espero genuena aurkitu dugula. Ikasle gehienek naturarekin harreman urruna dute, nahiz gustuko espazio gisa definitzen duten.

#### 4.3. Elkarrizketak gurasoei

Hezkuntza alorrean, batez ere txikiak garenean, bistakoa da gurasoak direla erabakiak hartzen dituztenak eta, horregatik, ezinbestekoa iruditu zait Basko Eskolen inguruko gurasoen iritzia aztertzea. Horretarako, Donostiako ama batekin, Basauriko ama batekin eta Etxebarriko ama batekin hitz egin dut elkarrizketa banatan, gidoi ireki samarra erabiliz. Lehenbizikoa Bihotz-Inguru Baso Eskolarekin zuzen inplikaturiko ama da, beste biek ordea ez zuten aurrez ezagutzen Baso Eskolaren eredu; era horretan, aztertzen ari garen eredu berritzailearekiko bi posizio ezberdin aztertu ahal izan ditugu. Hirurak bat datoz esatean hezteko modu berritzaile edo desberdinak bilatu behar ditugula. Donostiako amak esaten duen moduan “umeen beharrianetan pentsatu behar dugu eta ez gurasoen beharrianetan.” Basauriko eta Etxebarriko amak harago joan dira eta eskola arruntaren hutsuneak ere salatu dituzte; Donostiako amak ohiko eskola arruntaren inguruan ezer ez du esango, baina konpromiso aktiboa bizi du Bihotz-Inguru Baso Udalekuarekin.

Baina zalantzak ere badituzte Baso Eskolen inguruan. Donostia eta Basauriko amek kezka agertu dute haurrak basoan hiru urtez egon ostean, ikasgela batean sartzeari dagokionez. Euskal Herrian proiektu aitzindaria denez, ez dakigu nolako egokitzapena duten umeek eskola arruntetara pasatzean. Gainera, Basauriko amak argudiatuko du gaur egun Haur Hezkuntzan umeek ikasten dutela irakurtzen, idazten eta eragiketa matematiko sinpleak egiten, eta zalantzak agertu ditu baso eskola baten maila hori lortuko ote luketen. Etxebarriko amak, ostera, ez du horrela pentsatzen eta derrigorrezko hezkuntza 6 urtera arte ez den bitartean, irakasleak umeak hezteko askatasun gehiago daukala pentsatzen du.

Basauriko eta Etxebarriko amek argudiatuko dute gaur egungo eskola sistema zorrotzegia dela, umeak ikasgela barruan orduak ematen dituztela eta gero etxean, etxerako lanak egin behar dituztela. Etxebarriko amaren esanetan: “Ikasgela barruan hezi beharrean, kalean hezi behar ditugu, mendian, hondartzan, inguratzen dituen horrekin kontaktuan. Irakaskuntza malguagoa izan behar da”. Basauriko amak jolasaren garrantzia ere azpimarratzen du: “Eskoletan jolasteko denbora kentzen diegu eta denbora hori kontzeptuak barneratzeko erabiltzen dugu, (...) jolasten utzi behar ditugu”. Basauriko amak azpimarratu du kultura desberdinak ditugula eta zaila izan daitekeela Alemanian hainbeste arrakasta izan duen proiektua hemen ezartzea. Hemengo gurasoek gehiegi babesten dituzte haien seme-alabak eta beldurra ematen diela haurrak bere

babespean ez egoteak. Etxebarriko amak ondoko saihetsetik heldu dio: “Aldaketa ez da zertan txarra izan, guk diegu beldurra aldaketei”. Baloreak ere garrantzitsuak dira, hirurak bat datoz proiektu honek onura esanguratsuak suposatu ahal dituela haurrentzat.

Kezkak kezka, zalantzak zalantza eta beldurrak beldur, alde agertu dira eta interes maila altuarekin. Ikus daiteke, beraz, litekeena dela gurasoen artean uste baino onarpen gehiago egotea aztertu dugun eskola ereduarekin esperimentatzeko, eta deigarria da ohiko hezkuntza sistemarekiko agertzen dituzten kexa eta desadostasunak.

## 5. Ondorioak


Baso Eskolek, bai Madrilgoak bai Donostiakoak, hezkuntza-eredu desberdina aurkezten digute, guk ezagutzen dugunetik oso urrun dagoen eredu. Nahiz eta legearen ikuspuntutik eskola desberdinak izan, nabarmenak dira bi eskolen arteko berdintasunak. Estatu espainolean aurrekari diren eredu hauek ateak zabaldu ahal dizkiete beste batzuei eta horrela aire zabaleko pedagogia indartu.

Umeen galdetegiak oso baliogarriak izan dira, askotan umeen iritziaz ahazten garelako eta hezkuntza alorrean haiek direlako zer esateko gehien izan behar luketenak. Galdetegietan ikusi da umeek bideojoko eta marrazki bizidunen izen asko dakizkitela baina gutxiago animalia eta landareena. Gainera, animalien izen gehienak lehoiak, krokodiloak, marrazoak eta horrelakoak izan dira, eta naturan beldur gehien ematen dienaren inguruan galdetzerakoan erantzun gehienak animalia basatiekin dute lotura, nahiz eta hemen horrelako animaliarik ez izan. Beraz, ondoriozta daiteke horrelako beldurrak liburu eta pelikuletatik datozela, errealistak izanik Euskal Herrian nekez jango baitzaitu lehoi batek.

Aipatu beharra dago ere %77a naturarekin kontaktuan egon dela azkenengo hilabeteetan edo astean; hori bai, euretako batzuek ikastolarekin irteerak egin dituztenez, ezin dugu jakin haien gurasoekin zenbat doazen parkera, mendira edo hondartzara. Galdeketa egin duten umeek ikasgelan baino nahiago dute ingurune natural batean klaseak eman eta, Richar Louv-ek (2005) umeak zuhaitzetara gero eta gutxiago igotzen direla esaten badu ere, gure ikerketak ez ditu emaitza berdinak agertzen, ikasleen % 92ak aitortzen baitu noizbait zuhaitz batera igo dela. Ikasleek naturan daudenean sentimendu positiboak adierazten dituzte orokorrean “alaitasuna”, “lasaitasuna” eta “askatasuna”. Horrek esan

nahi du naturan egoteak ondorio positiboak dituela umeengan, alaiago eta lasaiago sentitzeko aukera ematen baitie.

Amekin mantendutako elkarrizketetatik ondoriozta dezakegu gurasoen artean aurki daitekeela hezkuntza-eredu arruntetik ateratzeko nahia, beste eredu batzuk biltzeko gogoia. Hori bai, ondo egituratutako eta prestatutako ereduak. Bitxia iruditu zait hiru ametatik bik kexua agertu dutela etxerako lanen kopuruaz, etxerako lan asko izatearen motiboz ezin direlako jolasten egon. Baina umeen galdetegiak aztertzerakoan ikusten da ume askok eskolaz kanpoko ekintzak egiten dituztela; beraz, amak etxerako lan kopuruaz kexatzen dira, baina aldi berean ekintzez betetzen dituzte haien seme-alaben arratsaldeak. Amek zalantzak agertu dituzte Baso Eskoletatik Lehen Hezkuntzara eman behar den aldaketaren inguruan. Hori dela eta garrantzitsua iruditu zait hona ekartzea Peter Häfner 2002. urtean Heidelberg-eko Unibertsitatean egindako ikerketa. Lehen Hezkuntzako hainbat irakasleri eskatu zien haien ikasleak hainbat gaitasunen arabera ebaluatzeko. Horren ostean, Baso Eskoletatik zetozen umeen emaitzak ohiko Haur Eskola batetik zetozen umeen emaitzekin alderatu zituen eta jasotako datuen arabera, esan dezakegu Baso Eskola batetik datozen umeen emaitzak positiboagoak direla, grafikoan ikusten den moduan.



7. grafikoa. Peter Häfnerren ikerketaren datuak batzen dituen grafikoa.

Lan honetan honaino heldu naiz, baina jabetu naiz gaiak hari mutur ugari dituela aurrera egin nahi izanez gero. Interesgarria litzateke, esaterako, Europako Baso Eskolak aztertzea, gero hemen ditugunekin alderatzeko edo hemen sortzen direnei laguntzeko. Madrilgo Bosquescuela-n foma-kuntza kurtsoak ematen dituzte irakasleentzat, gurasoentzat eta nahi duen ororentzat. Interesgarria izango litzateke formazio

pedagogiko hori sakon aztertzea, baita beste batekin uztartzea ere eta nahasketa horretatik ateratzen dena aztertzea. Garrantzitsuena hezkuntza eredu berriak ezagutzera ematea da, premia badugulako hezkuntza berritzeko eta hobetzeko. Lan honetan berritze horretarako pista posible bat aztertu nahi izan dut, interesgarria hainbat ikuspegitatik, baina badira guretzat ezezagunak diren beste eredu asko.

## 6. Bibliografia

- Blades, R. eta Gill, C. (2010). Evaluation of Play England. A summary of years one to four. *National Children's Bureau*, 2015-4-29an hartuta, hemendik: <http://www.playengland.org.uk/media/156170/1004-play-england-evaluation.pdf>
- Bruchner, P. (2015). ¿Cómo de preparados llegan los niños y niñas a Primaria? *Bosquescuola. Preguntas frecuentes*, 2015-5-12an hartuta, hemendik: <http://bosquescuola.com>
- Bruchner, P. (2015). Preguntas frecuentes. ¿Se ponen enfermos con mayor frecuencia los niños de una escuela infantil al aire libre por jugar también con lluvia y frío? ¿Cómo se evalúa la estancia en el bosque desde un punto de vista médico? *Bosquescuola. Preguntas frecuentes*, 2015-7-1ean hartuta, hemendik: <http://bosquescuola.com>
- Elkind, D. (2007). *The power of play*. Cambridge, Massachusetts: De Capo Press.
- Freire, H. (2011). *Educar en verde. Ideas para acercar a niños y niñas a la naturaleza*. Barcelona: Graó
- Gutierrez, J. M. & Benito, J. & Fernandez, R. (2007). Eskola agenda 21 programa Euskal Herrian. *Hikhasi*, 117(1), 29-31. 2015-6-24an hartuta, hemendik: <http://www.hikhasi.eus>
- Herrero, Y. & Cembranos, F. & Pascual, M. (2011). *Cambiar las gafas para mirar el mundo. Una nueva cultura de sostenibilidad*. Madrid: Libros en Acción.
- Jardón, T. (2013) *Calendario de siembra. La huertina de Toni*. 2015-6-21ean hartuta, hemendik: <http://www.lahuertinadetoni.es>
- Juaristi, P. (2003) *Gizarte ikerketarako teknikak. Teoria eta adibideak*. Zarautz: Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua.



- Sala, G. (2012). ¿Qué se puede sembrar en el huerto en Mayo? *Agrojardin Sala S.L.* 2015-6-4an hartuta, hemendik: <http://www.todohuertoyjardin.es>
- Sala, G.(2012). ¿Qué se puede sembrar en Marzo en el huerto? *Agrojardin Sala S.L.* 2015-6-4an hartuta, hemendik: <http://www.todohuertoyjardin.es>
- Louv, R. (2005). *Last Child in the Woods. Saving our children from nature-deficit disorder.* Great Britain: Atlantic Books.
- Palmer, S. (2007). *Toxic childhood. How modern world is damaging our children and what we can do about it.* Londres: Orion.
- Piaget, J. &Inhelder, B.(1993). *Psicología del niño.* Madrid: Morata.
- Pikler, E. (1969). *Moverse en libertad.* Madrid: Narcea.
- Rivkin, M. (1997). The schoolyard habitat movement: What it is and why children need it. *Early Childhood Education Journal*, 25(1), 61-66. 2015-5-25ean hartuta, hemendik: <http://link.springer.com/article/10.1023%2FA%3A1025694100870#page-1>
- Rodríguez Jiménez, J. (2002). *Los niños, los animales y la naturaleza.* Barcelona: EDAF.
- Sociedad Española de Medicina De Familia y Comunitaria (2010). *Estudio sobre accidentes infantiles atendidos en centros de salud.* Madrid: Fundación Mapfre.
- Tonucci, F. (1997). *La ciudad de los niños.* Madrid: Fundación Germán Sánchez Ruipérez.
- Vigotsky, L. S. (1979). *El desarrollo de los procesos psicológicos superiores.* Barcelona: Grialjo.
- Wild, R. (1999). *Educación para ser. Vivencias de una escuela activa.* Barcelona: Herder.
- Wilson, E.O. (1984). *Biophilia.* Massachusetts: Harvard University Press.

## ERANSKINAK

## 1. Eranskina

Galdetegi originala Richard Louv (2005:396):

1. How would you define nature?
2. When was the last time you went outside into nature near your house? How long were you there? What did you do?
3. How many video games or cartoon characters can you name?
4. What do you fear most about nature?
5. What do you love more about the outdoors?
6. How many kinds of plants and animals in your neighborhood can you name?
7. When you are in the woods, at a stream, at the beach, or out in a field, how do you feel?
8. Next time you're in one of those places, ask yourself, what do you hear, smell, taste, see?
9. When was the last time your parents or some other adult took you hiking, camping, fishing, or exploring in nature?
10. What could you do to have more time outdoors?
11. What could you do to help your friends and other young people experience more nature?

## 2. eranskina

Galdetegia umeentzat

1. Zure ustez, zer da natura?
2. Noiz izan zen naturarekin kontaktuan egon zinen azken aldia? Zer egiten ibili zinen?
3. Zenbat bideo jokoren izenak eta marrazki bizidunetako pertsonai aipatu ahal dituzu?
4. Zer da naturan beldur gehien ematen dizuna? Eta gehien maitatzen duzuna?
5. Zure inguruneko zenbat landare eta animalia izenak aipatu ahal dituzu?
6. Basoan zaudenean, hondartzan, mendian, etab. zelan sentitzen zara?
7. Gustatuko litzaizuke klaseak eskolatik kanpo ematea, hondartzan edota basoan, animaliak zaintzen eta arropa zikintzen? Edo nahiago duzu ikasgela batean egotea? Borobildu.

NATURA      IKASGELA

8. Noizbait igo zara zuhaitz batera? Borobildu

BAI    EZ

9. Eskolaz kanpoko zenbat ekintza egiten dituzu? Zergatik egiten dituzu? Adibidez. futbola, dantza, saskibaloia, marrazketa, igeriketa,...

#### 4. eranskina

Galdetegiaren emaitzak

1. Zer da natura?

- Natura deskribatzeko inguruneko elementuak erabili dituzte: landareak, zuhaitzak, mendiak, etab.

E:27 Z:20 B: 29

- Beste erantzun batzuk. E: 12 Z: 3 B: 14

- Bakarrik hasten diren gauzak.
- Gizakiak egin ez duen zerbait.
- Bizidunen tokia.
- Inguratzen gaituena.

- Ez dakit. E: 3 Z:6 B: 1

2. Noiz izan zen naturarekin kontaktuan egon zinen azken aldia? Zer egiten ibili zinen?

- Azkenengo astean. E: 15 Z: 8 B: 40

- Azkenengo hilabetean. E: 11 Z: 14 B: 1

- Urte honetan. E: 0 Z: 3 B: 2

- Ez dakit. E: 16 Z: 3 B: 1

\* Aipatzekoa da Begoñazpi ikastolako 5.mailako ikasleak eguaztenean Urkiolara joan zirela eta 4. mailakoak Arantzako barnetegian astelehenetik eguaztenera egon zirela.

3. Zenbat bideo jokoren izenak eta marrazki bizidunetako pertsonai aipatu ahal dituzu?

- 5 baino gehiago. E: 19 Z:25 B: 22

- 5 baino gutxiago\*. E: 20 Z:2 B: 17

- Ez dakit. E: 3 Z: 2 B: 5

\* Atal honen barruan sartu ditut “asko“ edo “...“erantzun dutenak, idatzita ez dagoena ezin dut baloratu eta beraz ez dakit zenbat dakiten “asko“ idazten dutenean. Etxebarrin 9 ikaslek erantzun dute horrela eta Bilbon 14.

4. Zer da naturan beldur gehien ematen dizunak? Eta gehien maitatzen duzuna?

Beldurrak	Etxebarri	Zornotza	Bilbo
Animaliak eta landareak	24	21	26

Alergiak	2	0	0
Lekuak	1	1	1
Kutsadura eta bere ondorioak	4	2	1
Ez dakit	7	2	7
Zuhaitzetatik erortzea	1	1	0
Iluntasuna	3	1	8

Gustokoa	Etxebarri	Zornotza	Bilbo
Animaliak eta landareak	26	22	31
Lekuak	5	4	4
Ez dakit	6	2	3
Argitasuna	0	0	4
Beste erantzunak	5	1	2

5. Zure inguruneko zenbat landare eta animalia izenak aipatu ahal dituzu?

- EH-koak. E: 14 Z: 24 B: 26
- Kanpokoak. E: 14 Z: 5 B: 11
- Ez dakit. E: 14 Z: 0 B: 7

6. Basoan zaudenean, hondartzan, mendian, etab. zelan sentitzen zara?

- Ondo edo oso ondo. E: 30 Z: 14 B: 9
- Aske. E: 1 Z: 6 B: 15
- Alai/ pozik. E: 6 Z: 2 B: 7
- Txarto. E: 1 Z: 0 B: 0
- Lasai. E: 0 Z: 4 B: 9
- Aspertuta. E: 1 Z: 0 B: 0

- Beste batzuk.      E:0    Z: 2    B: 3
- Ez dakit.          E: 3    Z: 1    B:1

7. Gustatuko litzaizuke klaseak eskolatik kanpo ematea, hondartzan edota basoan, animaliak zaintzen eta arropa zikintzen? Edo nahiago duzu ikasgela batean egotea? Borobildu.

NATURA      E: 36    Z: 26    B: 30

IKASGELA    E: 6    Z: 3    B: 12

9. Noizbait igo zara zuhaitz batera? Borobildu

BAI    E: 36    Z: 26    B: 41

EZ    E: 6    Z: 3    B: 3

8. Eskolaz kanpoko zenbat ekintza egiten dituzu eta zergatik egiten dituzu? Adibidez, futbola, dantza, saskibaloia, marrazketa, igeriketa,...

Ekintza kopurua	Etxebarri	Zornotza	Bilbo
Bat ere ez	10	2	5
1	19	7	14
2	12	11	12
3	0	2	7
4	1	5	4
5	0	2	0
6 edo gehiago	0	0	2

#### **4. eranskina**

##### **Gurasoen elkarrizketak**

*Donostian bizi den ama 2 seme-alabekin.*

##### **Zergatik etorri zara Bihotz-Inguuru natura elkarteko udalekuen batzarrera?**

Berez, batzarrera etorri naiz eskolaren inguruko informazioa jasotzera eta ez udalekuena. Ez ohiko pedagogietan interesatuta nago eta batez ere honetan, uste dut umeak naturarekin kontaktua galdu dutela eta modu honetan hezteko oso ideia interesgarria iruditzen zait.

##### **Nola izan duzu proiektu honen berri?**

Interneten irakurri nuen aire zabaleko eskola bat Donostian zabaldu nahi zutela eta horren inguruko informazio gehiago bilatzen hasi nintzen, Bizkaian daukadan lagun pedagogoa batekin ere hizketan egon nintzen proiektu honen inguruan eta hezitzailez betetako familia batetik natorren heinean, nire ama eta izekorekin ere komentatu nuen.

##### **Zergatik interesatu zara honelako proiektu batean?**

Esan dizudan bezala, nahiz eta ni hezkuntza munduan sartuta ez nagoen, nire inguruan baditut hezkuntzarekin erlazionatuta dauden pertsonak eta horrek hezteko metodo berritzaile edo desberdinak bilatzera bultzatzen nau. Proiektu hau oso erakargarria iruditu zitzaidan hasieratik eta sustatzaileekin telefonoz hitz egin ondoren, batzarrera etortzeko gonbidapena luzatu zidaten.

Irakaskuntzan eredu berriak behar ditugula uste dut, umeen beharrezanetan pentsatu behar dugu eta ez gurasoen beharrezanetan.

##### **Beraz, prest egongo zinateke zure seme-alabak aire zabaleko eskola batera eramaten?**

Baietz esango nuke, argi dago proiektuari oraindik buelta batzuk eman behar zaizkiola, baina oso pedagogia berritzailea eta interesgarria iruditzen zait, gustatuko litzaidake nire seme-alabak horrelako eskola batera joatea, bueno jadanik alaba bakarrik, nagusia 3 urte



dituelako eta eskola momentuz ateak zabaldu ez dituenek, ez dut uste proiektuan parte hartzeko aukera izango duenik.

Hala ere, zalantzak ere sortzen zaizkit, horregatik etorri naiz batzarrera, zer gertatzen zaie Baso Eskola batetik datozen umeei, Lehen Hezkuntzako eskola batera sartzen direnean? Galdera honen erantzuna ez dakigu eta horrek ama naizen heinean, larritu egiten nau.

*Basaurin bizi den ama 2 seme-alabekin.*

Baso Eskolaren inguruan hitz egin eta gero, elkarrizketatua oso harrিতuta agertuta da ez baitzekien horrelako pedagogiarik existitzen zenik.

### **Zer pentsatzen duzu horrelako pedagogia baten inguruan?**

Nire ustetan zaila izan daiteke batez ere gurasoentzat, izan ere, ohituta daude haien seme-alaben bizitzaren kontrola izatera. Nire alabak 2 urte ditu eta ikastolatik egunero papertxo bat akertzen du non jan duena agertzen den, nola egin duen lo siestan eta komunera joan den ala ez, horretaz gain haien argazki guztiak web orrialdean agertzen dira baita egiten dituzten proiektu guztien argazkiak ere.

Baina pedagogikoki oso ideia polita iruditzen zait, umea ingurune natural batean egon beharko litzateke, eskola zorrotzegia da. Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzara doazenean, aldaketa ikaragarria da. Haur Hezkuntzan jolasak eta abestiak erabiltzen dituzte kontzeptuak ikasteko, baina Lehen Hezkuntzara igarotzerakoan jolasa ikasgeletatik at geratzen da.

### **Zergatik uste duzu Europako iparraldean horrelako eskolak daudela baina ez hegoaldeko herrialdeetan?**

Kultura desberdinekin erlazionatuta dagoela esango nuke, zergatik Holandan bizikleta egunero erabiltzen dute, eta gu klima hobea daukagula ez dugu ezta garajetik ateratzen? Gauza berdina gertatzen da eskolekin, arlo kultura paper garrantzitsua dauka hezkuntzan. Niri beldurra emango zidan nire semea edo alaba euria edo hotzarekin basoan daudela pentsatzeak, ohituta nagoelako horrelako eguraldiarekin etxean egotera edota euritakoarekin irtetea, baina ez goaz parkera, leku itxietara goaz. Eta seguruenik horrelako eskoletan ikasten duten umeak gaixotasun gutxiago izango dituzte eta

kontzentrazio eta autonomia maila altuagoak garatuko dituzte, baina niri zaila egingo zitzaidan.

### **Uste duzu gaur egungo hezkuntza sistema aldatu behar dela?**

Bai, ez daukat inolako zalantzarik, nik ikasten nuenetik gaur egunera arte gauzak oso gutxi aldatu dira eskoletan. Hezkuntza sistema aldatu beharko lirateke eta malguagoa bihurtu. Gure hezkuntza sistema ez dago prestatuta beste eredu pedagogikoekin uztartzeko, agian Europan prestatuta egongo dira baina ez hemen. Hezkuntza egitura aldatu beharko lirateke, eskolak kontaktuan egon beharko lirateke haien inguruan dagoenarekin, auzoa, basoa, ibaia, mendia, etab. Umeak ez lirateke egun osoa lau hormen artean egon beharko.

Eskoletan jolasteko denbora kentzen diegu eta denbora hori kontzeptuak barneratzeko erabiltzen dugu, baina umeak ez dira berdinak, ez du garapen kognitibo berdina izango urtarrilean jaio den umea edota abenduan jaio dena. Etxerako lanak egiten ere denbora asko ematen dute, umeak dira, nire semeak 6 urte ditu eta ikastolan jesarrita orduak eman ostean, etxera dator eta parkera joan beharrean etxerako lanak egin behar ditu. Jolasten utzi behar ditugu.

### **Gustatuko litzaizuke zure seme- alabak Baso Eskola batera eramatea?**

Bueno, pentsatu beharko nuke, ama moduan aintzat hartuko nuke, informatuko nintzateke eta pentsatuko nuke baina ez dut uste azkenean aldaketa handia suposatzen duelako. Seguruenik gaixotasun gutxiago izango dituzte baina ez dut uste nire seme-alabek autonomia nahikoa dutenik, bero daukatenean ez dute ezta jaka kentzen zuk kentzen ez badiezu. Baina ez dut irakaskuntza zalantzan jartzen, ziur nago balore eta kontzeptu garrantzitsuak barneratuko lituzketela.

Egia da 3 eta 6 urte artean irakaskuntza ez dela derrigorrezkoa baina eskolara 6 urtekin hasten diren umeak eta Haur Hezkuntzan ibili ez direnak atzeratuta hasten dira, edukien aldetik atzeratuta ibiltzeak beldurra ematen dit. Nahiz eta hezkuntza derrigorrezkoa ez izan, Haur Hezkuntzako bigarren zikloan idazten eta irakurtzen ikasten dute baita kenketak eta batuketak egiten ere, eta ez dakit kontzeptu horrek guztiak berdin barneratuko lituzketen, gero Lehen Hezkuntzan ez direlako zerotik hasten, ulertzen da ikasleak oinarri bat daukatela. Udalekuetara bai eramango nituzke, oso proiektu

berritzailea eta interesgarria iruditzen zaidalako baina udalekueetatik, hezkuntza eredu batera alde handia dagoela uste dut.

*Etxebarrin bizi den ama alaba bakarrarekin*

Baso Eskolaren inguruan hitz egin eta gero, elkarrizketatua oso harrিতuta agertuta da ez baitzekien horrelako pedagogiarik existitzen zenik.

### **Zer pentsatzen duzu Baso Eskolen inguruan?**

Ezin dut sinetsi horrelako eskolak existitzen direnik, guretzat eskola kontzeptua guztiz desberdina da. Baina zuk plantatzen didazun proiektua berritzailea eta baliogarria iruditzen zait, izan ere, eskola honetan erabiltzen dituzten errekurtso naturalen bidez ikasleak “in situ” ikasiko dute eta derrigorrezko hezkuntza ez denez, irakasle eta pedagogoen askatasun gehiago izango dute umeak hezteko momentuan. Badaude ondo funtzionatzen duten hainbat hezkuntza-eredu baina gu berdina erabiltzen jarraitzen dugu, aldaketa ez da zertan txarra izan behar baina gu aldaketei beldurra diegu.

### **Orduan Baso Eskoletan erabiltzen den metodologiarekin bat zatoz?**

Bai, gaur egun daukagun metodologian zerbait ez doa ondo. Pentsatu momentu batez, gure seme-alabak zenbat urte ematen dituzten ingelesa ikasten, adibidez, eta batxilergo eta DBH amaieran horietako zenbat dira kapazak ingelesez elkarrizketa bat mantentzeko? 10 urte baino gehiago ematen dituzte hizkuntza ikasten. Gakoa ez dago gauza berdinak behin eta berriz buruan sartzean, gakoa irakasteko moduan dago. Ez dugu buruan gordetzen buruz ikasten dugun hori, buruan gordetzen dugu eginez ikasten duguna. Niretzat desberdintasun argia dago maisu eta irakaslearen artean, maisua orientatzailea, gidaria da eta irakasleak, bere ezagutzak transmititzen ditu. Irakaskuntza ez da zertan aspergarria izan behar, jakin-mina piztu behar da ikasleengan, errealitatean oinarrituta irakatsi behar da.

Azaldu didazunagatik, uste dut basoan gaur egun galtzen gabiltzan balore asko transmititu ahal direla. Gaur egungo gurasoek gero eta heziketaren parte handiagoa usten dute irakasleen eskuetan, baina badago haiek etxean egin behar duten lana eta ukatu ezin dena, baloreak etxean transmititu behar dira. Egia da, eskolan ere baloreak barneratzen dituztela baina oinarria etxean ezarri beharra dago.

### **Eta zer uste duzu gaur egungo eskola ereduari buruz?**

Aldatu beharra dago, edo behintzat, eredu berriei ateak zabaldu, eskola kontzeptua aldatu beharra dago. Dibertsitate handiagoa egon behar da, irakaskuntza ezin liteke ikuspuntu bakarretik fokatu. Gaur egungo eskolak homogeneotasuna bilatzen du baina ume bakoitzak bere erritmoa, ideiak eta izaera dauka eta hori ez dugu errespetatzen. Ez diegu emaitzei hainbesteko garrantzia eman behar, ikaslean zentratu behar gara, ez ditugu umeak zaintzen. Pertsonak sortzen gabiltza eta hori ahazten zaigu. Ikasgela itxiak dira, orduak eta orduak ematen dituzte jesarrita leku itxietan eta etxera heltzen direnean etxerako lanak egin behar dituzte, ez daude kontaktuan kanpoko munduarekin. Garrantzitsuena hemen ez da kantitatea, kalitatea baizik. Ikasgela barruan hezi beharrean, kalean hezi behar ditugu, mendian, hondartzan, inguratzen dituen horrekin kontaktuan. Irakaskuntza malguagoa izan behar da, umeak erratzeko aukera izan behar dute, jausteko, zikintzeko, horrela ikasten dutelako. Umeak ez dute ikasiko guk esaten badiegu zer egin behar den eta zer ez, edo zer dagoen ondo eta zer txarto, egiten ulertu eta barneratu behar dute.